

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 87/2019 Erabakia, otsailaren 12koa. Onestea egoiliarrei AP-1 eta AP-68 autobideetan diruz laguntzekoak diren tarteetan haiek ordaindu duten bidesariengatik dirulaguntzak emateko 2019rako deialdia, eta dagozkien esleipenak Arabako Bideak SAren (Arabat) alde**

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 12ko 317/2018 Erabakiaren bitartez, onespena eman zitzaien AP-1 eta AP-68 autobideetako tarte diruz lagungarrietan ordaindutako bidesariengatik Arabako Lurralde Historikoko herritarrei dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarriei.

Gobernu Kontseiluaren ekainaren 12ko 318/2018 Erabakiak onetsi zuen Arabako Bideak SAri (Arabat) esleitzea AP-1 eta AP-68 autobideetako tarte diruz lagungarrietan Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek ordaintzen dituzten bidesariengatik jasoko dituzten dirulaguntzak kudeatzeko eta bideratzeko ardura, entitate laguntzaile gisa.

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaritzak igorritako proposamena ikusi da, zeinak proposatzen duen onestea Arabako Lurralde Historikoko herritarrei AP-1 eta AP-68 autobideetan diruz laguntzekoak diren tarteetan ordaindu duten bidesariengatik dirulaguntzak emateko 2019ko deialdia, eta onestea, halaber, Arabako Bideak SAren (Arabat) aldeko beharrezko esleipenak, AP-68ko 400.000 euroko dirulaguntza eta AP-1eko 350.000,00 euroko dirulaguntza ordaindu ahal izateko.

Finantza eta Aurrekontu zuzendaritzak txostena egin du, eta horretarako nahikoa aurrekontu kreditu dagoela ziurtatu du.

Hartara, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hona hemen

#### ERABAKIA

Lehenengoa. Onestea AP-68 eta AP-1 autobideetako tarte diruz lagungarrietan Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek ordaintzen dituzten bidesariengatik jasoko dituzten dirulaguntzen 2019ko deialdi publikoa.

Bigarrena. Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko ekitaldiko aurrekontutik 400.000,00 euro esleitzea 50.1.07 54.01 480.00.01 "AP-68ko bidesari soziala" partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 19.5.19.105-290/000) Arabako Bideak SA (Arabat) sozietatearen alde, onartutako agindua betetzeko, hau da, AP-68 autobideko tarte diruz lagungarrietan Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek 2019an ordaindutako bidesariengatik dirulaguntzak ordaintzeko. Kopuru hori Arabako Foru Aldundiak aurrekontuan baliagarri daukan diruaren arabera handitu ahal izango da, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak txostena egin ondoren eta Bide Azpiegituretako eta Mugikortasuneko zuzendariak ontzat emanez gero.

Hirugarrena. Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko ekitaldiko aurrekontutik 350.000,00 euro esleitzea 1.50107.5401.4800002 "AP-1eko tarifa finkoa" partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 19.5.19.105-291/000) Arabako Bideak SA (Arabat) sozietatearen alde, onartutako agindua betetzeko, hau da, AP-68 autobideko tarte diruz lagungarrietan Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek 2019an ordaindutako bidesariengatik dirulaguntzak ordaintzeko. Kopuru hori Arabako Foru Aldundiak aurrekontuan baliagarri daukan diruaren

arabera handitu ahal izango da, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak txostena egin ondoren eta Bide Azpiegituretako eta Mugikortasuneko zuzendariak ontzat emanez gero.

Laugarrena. Helburu horretarako ezarritako aurrekontua agortu arte egongo da irekita deialdia.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agindua ematea.

Seigarrena. Ebazpen hau behin betikoa da bide administratiboan eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, argitaratzen den egunaren biharamunetik bi hilabete pasatu baino lehen, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, jurisdikzio hori arautzen duenak, 46. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritz. Gainera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabete pasatu baino lehen, eta egokitzen den beste edozein errekurtsu ere bai.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 12a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua*

**JESÚS MARÍA LÓPEZ UBIERNA**